4. Dirulaguntza zuritzeko ezarritako epean ez bada 1. atalean adierazitako dokumentazioa aurkezten, eskumena duen organoak onuradunari errekerimendua egingo dio 15 eguneko epean aurkez dezan. Epe berri hori amaitutakoan frogagiriak ez aurkeztu izanak eragingo du dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea edo 15. oinarrian aurreikusitako itzultzeko prozedura hastea. Hori guztia, salbuespen gisa, baimendu daitezkeen balizko luzapenen kalterik gabe.

*14. Dirulaguntza emateko ebazpenaren aldaketa.*

Erakunde onuradunek dirulaguntza ematen duen organoari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu aurretik, ebazpena alda dezan: finkatutako epeak luzatzeko, emandako dirulaguntza murrizteko edo jardueran bildutako ekintzak aldatzeko. Aurreikusi gabeko gertaeren ondorio direnean edo jardueraren helburua lortzeko beharrezkoak direnean baimenduko dira, betiere dirulaguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Organo emaileak aldatu dezake dirulaguntza ematea onartzen duen ebazpena, aurrez erakunde interesatuarekin bilduta eta funtsak aplikatu aurretik, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzen aldaketak helburu zen interes publikoa lortzea eragozten edo zailtzen badu eta baldin eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten.

*15. Dirulaguntzen itzulketa.*

1. Erakunde onuradunak ez baditu oinarri hauetan, berariazkoetan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako baldintza eta betebehar guztiak betetzen, dirulaguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galdutzat joko zaio eta dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutza interesak itzuli beharko ditu, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 35. artikuluan, eta 24/2008 Foru Dekretuak, apirilaren 29koak, onartutako garapen araudiko 63. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoari jarraikiz; eta hortik ondorioztaturiko erantzukizunei

d) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

e) Un ejemplar de los documentos generados por la edición de materiales y en las actividades de divulgación, que se deriven de la realización del proyecto subvencionado.

f) En su caso, la carta de pago en el supuesto de remanentes no aplicados.

2. El Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres podrá realizar actuaciones de comprobación o evaluación de los proyectos y actividades subvencionadas, previo aviso a la entidad beneficiaria, en las que ésta deberá facilitar el acceso a los lugares y la información que se requiera.

Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el gasto subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida, o que se han incumplido, total o parcialmente, los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la entidad subvencionada junto a los resultados de la comprobación realizada, y se iniciará el procedimiento para declarar la pérdida del derecho de cobro de la subvención o, en su caso, el procedimiento de reintegro total o parcial de la subvención previsto en la base 15.ª

3. La entidad subvencionada deberá recabar el consentimiento expreso del Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres para llevar a cabo cambios significativos en la ejecución de la acción con respecto a lo previsto inicialmente. En todo caso, se estará a lo establecido en la base 14.ª

4. Transcurrido el plazo establecido para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación a que se refiere el apartado 1, el órgano competente requerirá a la entidad beneficiaria para que en el plazo de 15 días aporte la misma. Transcurrido este nuevo plazo, la falta de presentación de la justificación llevará aparejada la pérdida del derecho de cobro de la subvención o el inicio del procedimiento de reintegro previsto en la base 15.ª Todo ello sin perjuicio de las posibles prórrogas que, con carácter excepcional, se hayan podido autorizar.

*14.ª Modificación de la resolución de concesión.*

Las entidades beneficiarias podrán solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas.

El órgano concedente también podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la entidad interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la beneficiaria.

*15.ª Reintegro de las subvenciones.*

1. El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases generales, en las específicas y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente, junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, y artículos 63 y siguientes de su reglamento de desarrollo, apro-

EK\CV GAO-I-2019-01709

ere aurre egin beharko die, foru arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira: egindako lanen, eta proiektu guztiaren eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera.

*16. Araudi aplikagarria.*

1. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzei, bertan eta berariazko oinarri arautzaileetan (1. eta 2. eranskinetan jasotzen direnetan) ezarritakoaz gain, honako hauek aplikatuko zaizkie: 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa; eta hori garatzeko emandako araudia, 24/2008 Foru Dekretuaren, apirilaren 29koaren, bidez onartutakoa.

2. Dirulaguntza hauek ez dira estatu laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuak 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta beraz, ez dauka bete beharrik aipatutako tratatuaren 108.3 artikuluan aurreikusitako jakinarazpen prozedura.

1. ERANSKINA

*Gipuzkoako udalei eta mankomunitateei zuzendutako dirulaguntzen oinarri espezifikoak.*

*1. Xedea.*

Oinarri espezifiko hauen xedea da dirulaguntzak ematea, helburu hauek dituzten proiektu berritzaileak egiteko:

a) Genero zeharkakotasuna sustatzea udal politiketan: berdintasunaren gaietan prestatzea; estatistikak egokitzea; generoaren araberako inpaktuaren aldez aurreko ebaluazioa egitea; dirulaguntza eta kontratu publikoetan berdintasun klausulak jasotzea, aurrekontuak generoaren ikuspuntutik aztertzea; eta abar.

b) Emakumeen jabekuntza eta parte-hartze sozial eta politikoa sustatzea.

c) Emakumeenganako indarkeria matxistaren kontrako alorrean, prebentzioa eta arreta hobetzea, batez ere gazteekin, eta emakumezkoen jabekuntzaren ikuspuntutik.

d) Kontziliazio erantzunkidea sustatzea, ahalbidetuko duena emakumeen eta gizonen artean lanean, familian eta bizitza pertsonalean dauden desorekak eta parte hartzeko baldintzak gainditzen, eta zaintzan emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzen.

Erakunde bakoitzak bi proiektu aurkeztu ditzake gehienez.

Diruz lagunduko dira deialdi urtearen urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra egindako jarduketak, eta gehienezko muga 200.000 eurokoa izango da.

Berdintasun diagnosiek eta plan orokorrek ez dute dirulaguntzarik jasoko, ez eta plan sektorialek eta estrategikoek ere, indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko protokoloak barne, horiek guztiak Emakundek finantzatzen baititu.

Gazteekin berdintasuneko eta indarkeria prebenitzeko proiektuen kasuan, kontuan hartuko dira, kasu bakoitzean, bakar-bakarrik udalerriko edota mankomunitateko gazteriaren gaineko politikaren esparruan eta indarkeriaren kontrako borrokaren gaineko politikaren esparruan landutako proiektuak, Gipuzkoako emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana, Aurre! planak planteatzen duenaren arabera.

Noizean behingo ekintzak inoiz ez dira diruz lagunduko.

bado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en el artículo 49 y siguientes de dicha norma foral.

2. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados en función de los trabajos realizados respecto a la totalidad del proyecto y a los importes percibidos.

*16.ª Normativa aplicable.*

1. Las subvenciones objeto de las presentes bases se regirán, además de por lo dispuesto en las mismas y en las bases específicas contenidas en los anexos 1 y 2, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

2. Estas ayudas no constituyen ayuda estatal en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, por tanto, quedan excluidas del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

ANEXO 1.º

*Bases específicas de las subvenciones destinadas a ayuntamientos y mancomunidades de Gipuzkoa.*

*1.ª Objeto.*

Es objeto de estas bases específicas el otorgamiento de subvenciones para la realización de proyectos innovadores dirigidos a:

a) Promover la transversalidad de género en las políticas municipales: formación en igualdad, adecuación de estadísticas y estudios, evaluación previa del impacto en función del género, incorporación de clausulas de igualdad en las subvenciones y contratos públicos, análisis de los presupuestos desde la perspectiva de género, etc.

b) Impulsar el empoderamiento y la participación socio-política de las mujeres.

c) Trabajar la sensibilización y prevención de la violencia machista, especialmente con gente joven, y mejorar la atención desde una perspectiva empoderante para las mujeres.

d) Promover la conciliación corresponsable que permita superar desigualdades en la participación de mujeres y hombres en la vida laboral, familiar y personal y que promueva la corresponsabilidad de los hombres en el cuidado.

El número de proyectos a presentar como máximo por cada entidad es de dos.

Se subvencionarán actuaciones ejecutadas desde el 1 de enero al 31 de diciembre del año de la convocatoria, hasta el límite máximo de 200.000 euros.

No será subvencionable la realización de diagnósticos, elaboración y evaluación de planes generales para la igualdad, ni planes sectoriales y/o estratégicos, incluidos los protocolos de atención de mujeres víctimas de violencia, puesto que son actividades financiadas por Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

En el caso de proyectos de igualdad y prevención de violencia con gente joven, sólo se aceptarán aquellos que sean abordados en el marco de la política de juventud y lucha contra la violencia del municipio y/o mancomunidad en cada caso, de acuerdo con el planteamiento del I. Plan Foral Aurre! para enfrentar la violencia contra las mujeres en Gipuzkoa».

En ningún caso se subvencionarán actuaciones puntuales.

EK\CV GAO-I-2019-01709

*2. Erakunde eskatzaileak.*

Oinarri hauetako dirulaguntzen onuradun izan daitezke Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalak –banaka edo hainbat udal elkarrekin aurkeztuta– eta mankomunitateak, baldin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak interesgarri iritzitako proiektu estrategikoak abian jartzen eta lantzen badituzte, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko politiken testuinguruan.

Diruz lagunduko dira:

1. Berdintasuneko politikak egiteko esparru egonkor bat (plangintza, berdintasuneko teknikari adituak plantilan, eta berdintasuneko politikak garatzeko berariazko aurrekontua) duten Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta mankomunitateek aurkeztutako proiektu estrategikoak.

2. Era berean, dirulaguntza jaso ahal izango dute baita ere, berdintasuneko plangintza, berdintasuneko politikak garatzeko berariazko aurrekontua, eta plantilakoak ez izan arren gutxienez lan saioaren % 50eko arduraldia duten langile tekniko espezializatuak dituzten udalek aurkeztutako proiektuek.

3. Erakunde onuradunak proiektuaren gastuaren zenbateko osotik % 20ko gutxieneko ekarpen ekonomikoa egin duten proiektuak.

*3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

1. Gastu hautagarriak dira jarduerak zuzenean dakartzanak; esate baterako, dokumentazioa, materialak, prestakuntza, inprenta, zabalkundea, laguntza teknikoa, joan-etorriak, aretoak alokatzea, eta abar.

2. Eskatzaileari ez zaizkio inolaz ere diruz lagunduko ez funtzionamendu arrunteko gastuak (argi, gas, telefono gastuak...), ez garraio gastuak, ez eta bere langile propioen gastuak.

*4. Eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.*

Dirulaguntza hauek jaso nahi dituzten erakundeek, oinarri orokorretan agertzen den dokumentazioa ez ezik, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Entitate guztiek:

a) 3/2007 Foru Arauan, martxoaren 27koan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoan, 12. artikuluaren 2, 3 eta 4 ataletan aipatzen diren onuradun izatea eragozten duten debeku egoeretan ez daudela frogatzen duen berariazko eta ardurapeko adierazpena.

b) Zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dituen berariazko eta ardurapeko adierazpena.

c) Banketxeak edo aurrezki erakundeak igorritako agiria, non ziurtatzen den eskatzailearen kontu korrontearen jabetasuna. Agiri hau soilik ekarri beharko da entitatea lehenengoz aurkezten bada edo dirulaguntza lerro honi lotuta duen kontu korrontearen zenbakia aldatu badu.

d) Proiektua, osagai hauekin: plan bat egiteko dagoen beharraren aldez aurreko azterketa; helburuak; jardueren programa; metodologia; egutegia; alderdi berritzaileak; herritarrek parte hartzeko bitartekoak.

e) Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, lantalde teknikoaren edo pertsona fisiko edo juridikoaren prestakuntza eta esperientzia profesionala egiaztatzeko agiriak, proiektua egiteko halakorik kontratatzen bada.

*2.ª Entidades solicitantes.*

Podrán acogerse a las subvenciones objeto de estas bases, los ayuntamientos –concurriendo individualmente y/o conjuntamente más de uno– y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa que deseen desarrollar y poner en marcha proyectos estratégicos en el marco de su política para la igualdad de mujeres y hombres que sean considerados de interés por parte del Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres.

Serán susceptibles de financiación:

1. Los proyectos estratégicos de ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa que cuenten con un marco estable para el desarrollo de la política para la igualdad (planificación, personal técnico propio especializado en igualdad en su plantilla, y presupuesto específico para desarrollar su política para la igualdad).

2. De la misma manera, se considerarán proyectos presentados por ayuntamientos con planificación en igualdad, presupuesto específico para desarrollar sus políticas para la igualdad y con personal técnico especializado en igualdad no adscrito directamente a su plantilla, con una dedicación de al menos el 50 % de la jornada laboral.

3. En todo caso, los proyectos deberán estar cofinanciados por la entidad solicitante en un 20 %, como mínimo, del importe total del presupuesto del gasto para la realización de los mismos.

*3.ª Gastos subvencionables.*

1. Se considerarán gastos subvencionales aquellos gastos derivados directamente de la actividad a desarrollar, como pueden ser: documentación, materiales, formación, imprenta, difusión, asistencia técnica, desplazamientos, alquiler de salas, etc.

2. En ningún caso serán subvencionables los gastos derivados del funcionamiento normal de la entidad solicitante (consumos de luz, gas, teléfono, etc), ni gastos de transporte ni del propio personal.

*4.ª Documentación a presentar con la solicitud.*

Las entidades interesadas en la concesión de estas subvenciones, además de la documentación señalada en las bases generales, deberán presentar los siguientes documentos:

1. Para todas las entidades interesadas:

a) Declaración expresa y responsable de no estar incursa la entidad solicitante en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria, señaladas en los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

b) Declaración expresa y responsable de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

c) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre. Este documento sólo será necesario en aquellos casos en que la entidad se presente por primera vez o haya modificado la cuenta corriente que obre en poder de esta Administración a efectos de la presente línea de ayudas.

d) Proyecto en el que se recoja el análisis previo de la necesidad existente, objetivos, programa de actividades a realizar, metodología, calendario, aspectos innovadores, mecanismos de participación ciudadana.

e) Documentación acreditativa de la formación en materia de igualdad y experiencia profesional del equipo técnico o de las personas físicas o jurídicas a las que, en su caso, se vaya a contratar para la realización del proyecto.

EK\CV GAO-I-2019-01709

f) Gastuen eta sarreren aurrekontu xehatua. Aurrekontu horretan adieraziko da, zehaztasunez, erakunde eskatzaileak zer ekarpen egingo duen eta ekarpen hori zein areak kudeatu edota finantzatuko duten.

g) Dirulaguntza eskatzen den jarduera bererako eskatu diren bestelako laguntzen zerrenda: zenbateko laguntza, laguntza hori zein administrazio edo erakunde publikori nahiz pribaturi eskatu zaion eta zein egoeratan dagoen zehaztuta (ukatuta, erabakitzeko, onartuta, diru kopuruak). Bestela, dirulaguntza eskatzeko aurkeztu diren proiektuetarako beste dirulaguntzarik ez dela eskatu egiaztatzen duen ardurapeko adierazpena.

h) Erakundeko idazkariaren ziurtagiria, zera egiaztatzeko: erakunde onuradunak gastuaren zenbateko osotik % 20ko ekarpen ekonomikoa egin duela, gutxienez, proiektu estrategikoa aurrera eramateko.

i) Beste edozein dokumentazio, esleipen irizpideak kreditatzeko aukera ematen duena.

j) Proiektuaren zuriketa aurkeztu behar den epean diruz lagundutako lanak guztiz amaitu ez badira, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da proiektua bukatuko denaren konpromisoa adierazten, eranskin honen 6. oinarrian azaltzen den bezala.

2. Oinarri hauen 2.1 puntuan aipatzen diren entitateak:

Oinarri honetako 1. zenbakian adierazitako dokumentazioaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko dute:

a) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko plangintza udalerrian.

b) Berdintasuneko teknikari adituei dagokienez, ondorengo egiaztagiriak aurkeztu beharko dira:

— Plazaren izena Lanpostuen Zerrendan.

— Lanpostuaren berdintasuneko beharkizun bereziak.

— Lanpostuaren monografian esleitutako eginkizunak.

Lanpostu hori betetzen duen pertsonari dagokionez, agiri bidez egiaztatu beharko da emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza ikastaro bat egina duela, 150 ordukoa gutxienez, eta organo ofizial batek ziurtatuta (unibertsitatea edo administrazio publikoa).

Salbuespen modura, kontuan hartu ahal izango dira aurreko paragrafoan aipatzen den prestakuntza hori betetzen ez duten eskaerak, baldin eta egiaztatzen bada plantilako langileek 2 urteko gutxieneko lan esperientzia dutela berdintasuneko teknikari gisa administrazio publikoan.

c) Udalak berdintasun gaietarako duen berariazko aurrekontua.

3. Oinarri hauen 2.2 puntuan aipatzen diren entitateak:

Oinarri hauen 2.1 puntuan adierazitako dokumentazioaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko dute:

a) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko plangintza udalerrian.

b) Entitate eskatzaileari atxikita ez dauden langile adituei dagokienez, agiri bidez egiaztatu beharko da emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza ikastaro bat egina duela, 150 ordukoa gutxienez, eta organo ofizial batek ziurtatuta (unibertsitatea edo administrazio publikoa).

Aholkularitza enpresa bat den kasuan, Emakunderen homologazioa izan beharko du [Homologazio hori arautzen du 105/2004 Dekretuak, ekainaren 8koak, aholkularitza entitateen homologazioa arautzen duenak, enpresa eta erakundeei

f) Presupuesto desglosado de los gastos e ingresos con indicación detallada de la aportación de la entidad solicitante, área o áreas que gestionan y/o financian.

g) Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas con destino a la actividad para la que se solicitare la subvención, en la cual habrá de hacerse referencia a la cuantía, a las administraciones o entidades públicas o privadas a las que se hubiere solicitado, así como el estado de las mismas (denegadas, pendientes de resolución, concedidas e importes). En caso contrario, declaración responsable de no haber solicitado ninguna otra ayuda para los proyectos presentados a subvención.

h) Certificado del Secretario o Secretaria de la entidad, justificativo de la cofinanciación en un 20 %, como mínimo, del importe total del presupuesto del gasto para la realización del proyecto.

i) Cualquier otra documentación que posibilite la acreditación de los criterios de concesión.

j) Certificado con el compromiso de que el proyecto subvencionado será ejecutado en su totalidad en el caso de que a la finalización del plazo para presentar la cuenta justificativa el proyecto no haya finalizado, tal y como hace referencia la base 6.ª del presente anexo.

2. Para las entidades a que se hace referencia en el punto 2.1 de las presentes bases:

Además de toda la documentación señalada en el número 1 de esta base deberán aportar la siguiente:

a) Documento de planificación municipal en materia de igualdad de mujeres y hombres.

b) En relación al personal técnico propio especializado en igualdad, deberán aportar documentación que acredite:

— Denominación de la plaza en la RPT.

— Requisitos específicos de igualdad de dicha plaza.

— Funciones asignadas en la monografía del puesto.

En relación a la persona que ocupa dicha plaza, deberán aportar documentación que acredite haber realizado, como mínimo, un curso de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres de al menos 150 horas de duración y certificado por un órgano oficial (universidad o administración pública).

Excepcionamente, podrán considerarse aquellas solicitudes en las que falte la formación a que alude el párrafo anterior y en las que se acredite que el personal propio cuenta con una experiencia laboral mínima de 2 años como técnica de igualdad en la administración pública.

c) Documento acreditativo del presupuesto específico del Ayuntamiento para igualdad.

3. Para las entidades a que se hace referencia en el punto 2.2 de estas bases:

Además de toda la documentación señalada en el punto 2.1 de estas bases deberán aportar la siguiente:

a) Documento de planificación municipal en materia de igualdad de mujeres y hombres.

b) En relación al personal especializado en igualdad no adscrito a la plantilla de la entidad solicitante, deberán aportar documentación que acredite el haber realizado, como mínimo, un curso de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres de al menos 150 horas de duración y certificado por un órgano oficial (universidad o administración pública).

Además, en el caso de tratarse de una empresa consultora, ésta deberá estar homologada por Emakunde [Homologación regulada por el Decreto 105/2004, de 8 de junio, modificado por el Decreto 348/2010, de 28 de diciembre, por el que se re-

EK\CV GAO-I-2019-01709

gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko, 348/2010 Dekretuaren, abenduaren 28koaren, bidez aldatutakoak].

Horrez gain eta kasu guztietan, berdintasuneko teknikariek, gutxienez, % 50eko lan saioa bete beharko dute.

c) Udalak berdintasun gaietarako duen berariazko aurrekontua.

4. Elkarrekin taldean aurkezten diren udalak:

Udal bakoitzak aurreko ataletan adierazitako agiri guztiak aurkeztu beharko ditu, bakoitzaren kasua kontuan hartuta, eta proiektua zuzenduko zaien udal guztien berariazko baimena eskuratu beharko da. Udal bakoitzak ezingo du bere aldetik eta bakarka dirulaguntzarik eskatu taldean eskatu duenaren antzeko proiektu baterako.

Era berean, hainbat udalek elkarrekin egin behar dituzten proiektuak ezingo dituzte aurkeztu, zatika, udal bakoitzak edo batzuek.

Gainera, udal elkarteen kasuan, adieraziko da zer udal izendatu den diruz lagundutako programako kudeaketa eta ordainketa gorabeheratarako. Udal horrekin egindako kudeaketak eta ordainketak baliozkoak direla ulertuko da.

5. Udalak berdintasun politiken garapenerako marko egonkor bat (plana, aurrekontua eta langileria) duen mankomunitate bateko kide badira, aurkeztuko duten proiektuak koordinatuta egon behar du mankomunitatearekin. Hori egiaztatzeko, agiri osagarri hauek aurkeztuko dituzte:

a) Proiektua mankomunitatearen planaren barruan sartzen dela egiaztatzen duen agiria. Bertan definituko da, gainera, zein izango den udalaren eta mankomunitatearen arteko koordinaziorako eta jarraipenerako egitura.

b) Gainera, aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean egongo da mankomunitatearen lehendakariak sinatutako idatzi bat, non ziurtatzen den baietz, aurkeztutako proiektua mankomunitatearen plangintzaren barruan kokatzen dela.

6. Mankomunitateak:

Mankomunitateek agiri hauek aurkeztuko dituzte:

a) 1 eta 2 ataletako agiri guztiak.

b) Estatutuen kopia aurkeztu beharko da, eta mankomunitatearen jarduera-mota eta izaera juridikoa adierazi.

*5. Dirulaguntzen ebaluazioa eta zenbatekoa.*

1. Deialdira aurkezten diren eskaerak baremo honen arabera baloratuko dira:

a) Proiektua testuinguruan kokatzea: 10 puntu gehienez.

— Aldez aurreko azterketa egitea dagoen beharrari buruz: 6 puntu.

— Proiektuaren esparrua eta proiektu hori bat etortzea Udaleko plangintzarekin edo Berdintasun Planarekin: 2 puntu.

— Udalerriaren errealitatera doitzea eta egokitzea: 2 puntu.

b) Proposamenaren kalitatea: 60 puntu gehienez.

— Helburuak definitzea: 15 puntu.

— Helburu horiei begira egingo diren jarduerak: 12 puntu.

— Laneko metodologia eta lan prozesua: 14 puntu.

— Jarraipen eta ebaluazio sistema: 14 puntu.

— Berrikuntzak: 5 puntu.

gula la homologación de entidades consultoras para la prestación de asistencia técnica en materia de igualdad de mujeres y hombres a empresas y entidades].

Además y en todos los casos, el personal técnico de igualdad deberá desarrollar como mínimo una jornada laboral del 50 %.

c) Documento acreditativo del presupuesto específico del Ayuntamiento para igualdad.

4. Ayuntamientos que concurren conjuntamente en agrupación:

Deberán aportar cada uno de ellos todos los documentos señalados en los apartados anteriores según sea su caso y contar con la autorización expresa de todos los municipios a los que vaya dirigido el proyecto, no pudiendo cada ayuntamiento solicitar por su cuenta ayuda para un proyecto similar al solicitado por la agrupación.

Asimismo, los proyectos que se vayan a realizar de forma conjunta por varios ayuntamientos no podrán presentarse fraccionadamente por cada uno o varios de los mismos.

Además, se deberá designar en la solicitud a uno de los municipios con el que se entenderán válidamente realizadas las actuaciones de gestión y pago del programa subvencional.

5. En el caso de ayuntamientos que forman parte de una mancomunidad que cuenta con un marco estable para el desarrollo de políticas para la igualdad (planificación, presupuesto y personal), el proyecto que presenten deberá estar coordinado con la mancomunidad, lo que supone el cumplimiento de los siguientes requisitos documentales adicionales:

a) Se deberá presentar documentación acreditativa de que el proyecto estará enmarcado dentro de la planificación de la mancomunidad, debiéndose además definir la estructura de coordinación y seguimiento que se establecerá entre ayuntamiento y mancomunidad.

b) Además, entre la documentación a presentar se incorporará un escrito firmado por la presidencia de la mancomunidad, que certifique que efectivamente el proyecto se enmarca dentro de la planificación de la misma.

6. Mancomunidades:

En el caso de mancomunidades, estas deberán presentar la siguiente documentación:

a) Todos los documentos de los apartados 1 y 2.

b) Fotocopia de los estatutos debiendo constar el tipo de actividad y su naturaleza jurídica.

*5.ª Evaluación y cuantificación de las subvenciones.*

1. Las solicitudes que se presenten a la convocatoria se valorarán de acuerdo con el siguiente baremo:

a) Contextualización del proyecto: hasta 10 puntos.

— Análisis previo de la necesidad existente: 6 puntos.

— Ámbito del proyecto y su correspondencia con la planificación o Plan de Igualdad Municipal: 2 puntos.

— Ajuste y adecuación a la realidad municipal: 2 puntos.

b) Calidad de la propuesta: hasta 60 puntos.

— Definición de objetivos: 15 puntos.

— Actividades a realizar en relación con los objetivos señalados: 12 puntos.

— Metodología y proceso de trabajo: 14 puntos.

— Sistema de seguimiento y evaluación: 14 puntos.

— Aspectos innovadores: 5 puntos.

EK\CV GAO-I-2019-01709

c) Honelako emakumeen partaidetza sustatzeko estrategiak diseinatzea eta garatzea: desberdintasun handiagoko posizio eta baldintzetan egon litezkeen eta, tradizionalki, erakundeetatik aldenduago bizi izan diren emakumeak (gazteak, migratzaileak, ijitoak, zaintzaileak, sexu langileak, etxeko langileak, eta abar): 5 puntu gehienez.

d) Sarean edo beste erakunde batzuekin lankidetzan lan egitea: 5 puntu gehienez.

e) Administrazioa barrutik eraldatzeko proiektuak genero ikuspegia txertatzeko helburuarekin: 5 puntu gehienez.

f) Indarkeria matxistaren kontrako sentsibilizazioa eta prebentzioa helburu duten proiektuak izatea: 5 puntu gehienez.

g) Kontziliazio erantzunkidea sustatzen duten proiektuak: 5 puntu gehienez.

h) Lan prozesua eta emaitzak euskaraz egiten diren proiektuak, berdintasuneko politikak lantzean hizkuntza normalizazioaren alde urratsak emateko: 5 puntu gehienez.

2. Dirulaguntza jasotzeko, proiektuek, gutxienez, 50 puntu jaso beharko dituzte.

Eskatutako gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten proiektuak baztertu ondoren, dirulaguntza ondorengo eran kuantifikatuko da: diruz lagunduko den zenbatekoa izango da proiektu bakoitzeko lagungarria den gehieneko zenbatekoa baremazio koefizientearekin biderkatuta lortzen dena. Baremazio koefiziente hori izango da proiektu horrek lortutako puntuazioa zati 100.

Dirulaguntza guztiak kuantifikatu ondoren deialdiko kreditu soberakina gertatuko balitz, soberakin hori proiektu bakoitzari banatuko zaio ondorengo formula aplikatuz: soberakina zatituko da banatutako kopuru osoaren artean eta honen emaitza biderkatuko da baremazio koefizientearekin eta jarraian proiektu bakoitzerako eskatutako zenbatekoarekin.

Aitzitik, dirulaguntzak kuantifikatu ondoren deialdian kreditua faltako balitz, diruz lagunduko den zenbatekoa honela kalkulatuko da: banatutako kopuru osoa biderkatuko da proiektu bakoitzak lortutako zenbatekoarekin eta horren emaitza banatuko da proiektu guztiek lortutako zenbateko osoaren artean.

*6. Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak.*

Emango diren dirulaguntzek ezin izango dituzte ondorengo zenbatekoak gainditu:

— Udalentzat, gehienez hamar mila euro (10.000 €) proiektu bakoitzarentzat. Gainera, udalek emandako zenbatekoaren % 20a finantzatu beharko dute gutxienez.

— Elkarrekin aurkezten diren udalentzat edo mankomunitateentzat, gehienez hamahiru mila euro (13.000 €) proiektu bakoitzarentzat. Elkarrekin aurkezten diren udalek edo mankomunitateak, emandako zenbatekoaren % 20a finantzatu beharko du gutxienez.

Berdintasuneko plangintza, berdintasuneko politikak garatzeko berariazko aurrekontua, eta plantilakoak ez izan arren gutxienez lan saioaren % 50eko arduraldia duten langile tekniko espezializatuak dituzten udalen kasuan, proiektuko gehieneko zenbatekoa 5.000 euro izango da.

*7. Dirulaguntza ordaintzea.*

Onartutako dirulaguntza ordainduko da oinarri orokorretako 13. klausulan aipatzen den kontu zurigarria aurkeztu ondoren, eta kontu hori diru laguntzen deialdi urteko azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da.

Nahiz eta dirulaguntzaren osotasuna justifikatua egon, diruz lagundutako jarduerak ez badira amaitu data horretarako, onuradunek kontu zurigarri partziala aurkeztu beharko dute burututako jarduerekin, eta hitza eman beharko dute jarduera guztiak zurituko dituztela deialdi urtearen ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen.

c) Participación de las mujeres en condiciones y posiciones potenciales de mayor desigualdad o alejadas, tradicionalmente de las instituciones (jóvenes, migrantes, gitanas, cuidadoras, trabajadoras del sexo, trabajadoras domésticas, etc.): hasta 5 puntos.

d) Trabajo en red o en colaboración con otras instituciones: hasta 5 puntos.

e) Los proyectos que tengan como objetivo hacer cambios en la administración para incorporar la perspectiva de género: hasta 5 puntos.

f) Los proyectos en el ámbito de la sensibilización y prevención de la violencia machista: hasta 5 puntos.

g) Los proyectos que promuevan la conciliación corresponsable: 5 puntos.

h) Proyectos cuyo proceso de trabajo y resultados se hagan en euskera con el fin de avanzar en la normalización lingüística del desarrollo de las políticas de igualdad: hasta 5 puntos.

2. Para ser subvencionados, los proyectos deberán obtener al menos un mínimo de 50 puntos.

Una vez descartados los proyectos que no obtengan la puntuación mínima exigida, la subvención se cuantificará en la forma siguiente: la cuantía a subvencionar será el resultado de multiplicar la cantidad máxima subvencionable del proyecto por un coeficiente de baremación consistente en la puntuación obtenida por el mismo dividida entre 100.

Si, una vez cuantificadas todas las subvenciones, resultase crédito sobrante en la convocatoria, dicha cantidad sobrante se repartirá a cada proyecto en aplicación de la siguiente fórmula: la cantidad sobrante se dividirá entre la cantidad total repartida y se multiplicará por el coeficiente de baremación obtenido y, a continuación, por la cantidad solicitada en cada proyecto.

Por el contrario, si una vez cuantificadas las subvenciones, faltara crédito en la convocatoria, la cuantía a subvencionar se calculará de la siguiente manera: la cantidad total repartida se multiplicará por la cantidad obtenida de cada proyecto y se dividirá entre la cantidad total obtenida de todos los proyectos.

*6.ª Cuantías máximas de subvención.*

Las ayudas que se concedan no podrán superar las siguientes cuantías:

— Para los ayuntamientos, un máximo de diez mil euros (10.000 €) por proyecto. El ayuntamiento, además, tendrá que financiar como mínimo un 20 % de la cuantía concedida.

— Para los ayuntamientos agrupados o las mancomunidades, un máximo de trece mil euros (13.000 €) por proyecto. Los ayuntamientos agrupados o la mancomunidad tendrán que financiar como mínimo un 20 % de la cuantía concedida.

En el caso de ayuntamientos que cuentan con planificación en igualdad, presupuesto específico para desarrollar sus políticas para la igualdad y con personal técnico especializado en igualdad no adscrito directamente a su plantilla y con una dedicación de al menos el 50 % de la jornada laboral, la cuantía máxima por proyecto será de 5.000 euros.

*7.ª Abono de la subvención.*

La subvención concedida será abonada tras la presentación con anterioridad al 15 de noviembre, del año de la convocatoria de ayudas, de la cuenta justificativa a que alude la cláusula 13.ª de las bases generales.

Aunque se haya justificado toda la ayuda económica, en el caso de que las actuaciones objeto de subvención no hayan finalizado en esa fecha, se presentará una cuenta justificativa parcial con las actividades llevadas a cabo así como un compromiso de que se justificará el proyecto en su totalidad con anterioridad al 1 de marzo del año siguiente al de la convocatoria.

EK\CV GAO-I-2019-01709

Konpromiso hori dagokion udal edo mankomunitateko ordezkariak sinatu beharko du.

2. ERANSKINA

*Emakumeen elkarteei eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburua duten irabazi asmorik gabeko erakundeei zuzendutako dirulaguntzen oinarri espezifikoak.*

*1. Xedea.*

1. Oinarri espezifiko hauen xedea da dirulaguntzak ematea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren xede eta helburuekin zerikusia duten proiektuak egiteko, baldin eta proiektuok xede badute Gipuzkoako Lurralde Historikoan elkartegintza sustatzea, eta emakumeen banakako jabekuntza eta jabekuntza kolektiboa eta partaidetza soziala bultzatzea. Halaber, Organoaren ildo estrategikoetara hurbiltzen diren proiektuak ere balioetsiko dira. Hauek dira ildo estrategiko horiek: indarkeria matxistaren sentsibilizazioa, prebentzioa eta arreta; eta gizarte antolakuntza erantzunkide baten sustapena.

2. Elkarte edo erakunde bakoitzak bi proiektu aurkez ditzake gehienez, eta proiektuek xede hauek izan behar dituzte:

a) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruz informazioa ematea, sentsibilizatzea, ikertzea eta zabalkunde lanak egitea.

b) Emakumeen prestakuntzan eragitea, jabekuntza sustatzeko eta emakumeek genero desberdintasunei buruz kontzientzia hartzeko.

c) Emakumeen parte-hartzea sustatzea, beren egoera soziopolitikoari buruz eztabaida bultzatzen duten jarduketen bidez, eta emakumeen kudeaketa eta zuzendaritza gaitasuna lantzen duten sareak sortzen laguntzea.

d) Kontziliazio erantzunkidea sustatzea, ahalbidetuko duena emakumeen eta gizonen artean lanean, familian eta bizitza pertsonalean dauden desorekak eta parte hartzeko baldintzak gainditzen, eta zaintzan emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzen.

e) Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren alorrean sentsibilizatzea, prebenitzea eta arreta hobetzea, emakumezkoen jabekuntzaren ikuspuntutik.

f) Berdintasunzaleagoak eta erantzunkideagoak izango diren maskulinitate eredu berriak eraikitzeko lana bultzatzea.

3. Diruz lagunduko dira deialdi urtearen urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra egindako jarduketak, eta gehienezko muga 430.000 eurokoa izango da.

*2. Erakunde eskatzaileak.*

